

Aretxagazeta

Aretxabaleta
1995eko apirilak 6

Urkuluko
harrobia

Berbari
hitzarmenaren
sinaketa
ekitaldia

Aste Santuak



Eskizaleak urtetik urtera
ugarriago

Ipin ezazu martxan
 5.000.000 pta.
 %10 garbian (UTB %9,14)
 eta 3 urteren buruan...



Ondare Aseguratua:

- Interes garantizatua.
- %25eko atxekipen fiskalik gabe.
- Inbertsioak irauten duen bitartean ez duzu zergarik ordainduko errenta-aitorpenean.

Ondare Aseguratua Lagun Aro Vida S.A.ren Bizi Asegurua da.
 Zatoz Euskadiko Kutxaren sukurtsaletara edo hotsegizu 901-333 444 telefonora.

Garantizatutako kapitalak.

1.000.000 pta.	3 urtera	1.275.000 pta.	Nominala %9,16 (UTB %8,43)
3.000.000 pta.	3 urtera	3.850.000 pta.	Nominala %9,44 (UTB %8,67)
5.000.000 pta.	3 urtera	6.500.000 pta.	Nominala %10,00 (UTB %9,14)

95-1-14tik aurrera dagoen eskaintza.

Eskiatzera joateko ohiturarik bai?

*Kepa Bengoa
(Langilea)*

Ez, ez naiz sekula eskiatzen egon. Candanchun egon naiz baina ez eskiatzen. Eskiatzea oso garestia dela iruditzen zait.



*Conchi Rubio
(Langilea)*

Ez daukat afizio haundirik. Urtean behin joaten naiz normalean. Azkenengo aldiz Luz Ardidenera joan nintzen.



*Myriam Beltran de Heredia
(Langilea)*

Ez dut eskiatzen joateko ohiturarik. Behin joan nintzen eta horrekin nahikoa. Oso garestia dela iruditzen zait.



*Koldo Zubillaga
(Langilea)*

Normalean urtean behin joaten naiz. Gabonetan joateko ohitura daukat eta Sierra Nevada joaten naiz.



Egunkaria ren aldeko

ANTIGUAKO
V. KROS
HERRIKOIA

APIRILAK

9

goizeko 11etan



ANTOLATZAILE



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultur sailak
diruz
lagundutako
aldizkaria



Aretxabaletako
Udalak diruz
lagundutako
aldizkaria

TODOS **LETE**

Kataide Poligonoa
14 Pabiloia ☎ 79 23 83
ARRASATE

Argitaratzailea: Aretxagazeta Elkarte, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila.
Erredakzio-konseilua: Marta Madinabeitia, Imanol Aginagalde, Miren Eraña, Iosu Urkia, Arantzasu Abasolo, Xabin Arriola.
Publizitate eta erredakzio arduraduna: Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Aitor Antxia, J.J. Aretxaga, Iñaki Urreta, Loramendi K.E., Udala. **Banatzailea:** Iosu Elempuru. **Inprimategia:** Eguzkigraf. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper Birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94

Aretxagazeta

Zoritxarrez...

1995eko martxoaren 24an Almeneko goi batxilergoko delegatuak bildu ginen **Lasa eta Zabala** gudarien erahilketa eta hil aurretik jasandako torturak salatzeke.

Nahiz eta Euskal Herri guztian paro eta mobilizazio deialdiak egon, ezinezkoa egin zaigu klaseak uztea honako arrazoiarengatik, Almenen paro normatiba aspaldian suspentsioan dagoelako.

Beraz elkartasuna adierazteko, gure aldetik, mobida alternatibo bat aukeratu dugu, guk ahal dugun neurrian Euskal Herriak Espainiar Estatuarengandik jasaten duen errepresioa salatuz. Guk kartelak egitea, klaseetan informazioa banatzea, debateak egitea..., eta hitz hauen bitartez gure jarrera eta egoera zuei adiraztea pentsatu dugu. Honen bidez jende guztia arazo honetaz ausnartzera bultzatu nahi dugu, gure jarrera argi utziz.

Azkenik, momentu hau aprobetxatu nahi genuke bi gazte Tolosar hauekin batera Euskal Herriagatik bizia eman duten gudari guztiak gogoratzeko.

Almeneko Goi Batxilergoko delegatuak.

KORRIKA

Eskutitz honen bidez euskaltegikook KORRIKAren egunean jaso genuen deiezpioa ageri nahi dugu. Hasteko guretzat KORRIKA daukan esangura esan nahiko genuke.

Euskaldunberriak garen aldetik jendearen laguntza sentitzea eta aintzakotzat hartzen gaituztela ikustea oso garrantzitsua da, euskaldun onartua eta integratua sentitzea ez bait da erraza.

Oso denbora luzea pasatu behar da hizkuntza ikasten, baina horrekin batera eta gure ustez ia ia garrantzitsuena, jendearen onarpena sentitzea beharrezkoa dugu benetako euskaldunak izatera iristeko.

KORRIKAren egunean goizeko sei t'erdietan hogeitabost pertsona elkartu ginen antolatzaileek esan ziguten kilometro erdian testigoo eraman eta honen atzetik korrika egiteko prest.

Ia hiru ordu laurden zain pasatu genuen eta KORRIKA guregana heltzeko bost minutu falta zenean dorsala jantzita zeraman neska bat gure aurrean jartzen ikusi genuen.

Segituan konturatu ginen testigoo eramateko zuen asmoaz.

Berarekin hitzegiteak ez zuen ezertarako balio izan. Nahiz eta leku erratuan zegoela esan, harro jarri eta KORRIKA heldu zenean testigoo hartu zuen.

Han geratu ginen harriritua eta guztiz minduta, eta are gehiago antolatzaileek kotxeko mikrofonotik esandako "AUPA EUSKALTEGIKOAK" entzundakoan.

Benetan uste genuen gutxienez azalpen bat emango zigitela, baina harrokeria besterik ez dugu aurkitu.

Minduta gaude, oso minduta, agian ez zaizue ezer axolako, baina orrialde honetatik gauza bat esan nahi dizuegu "Murruxokook bigarren motako hiritar sentiarazi gaituzue". Eskerrik asko.

Bertan egondako ikasleak

JANTZI DENDA

ASENSIO

Mitarte Kalea, 12

Tel. 79 10 72

ARETXABAleta

Mobiliario
ARENAZA

ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA

Bizkaia, 1 - Tfnoa: 79 08 07 Aretxabaleta

ENBOR

Eloy Borgas Iglesias

- Sukalde muntatzailea
- Aroztegia orokorrean

Santa Kurtz, 24 Aretxabaleta
Tfno-Faxa: 79 02 51

MASAILARIAK

MASAIK ZARAIA

MASAIK eta
OSTEOPATIA

Loramendi 13-1-A
Tfnoa: 79 71 55

Urkuluko harrobia berrezkuratu guran



Harrobiko ingurugiroa berreskuratzea da helburu nagusia.

Duela urte batzuk, Urkuluko urtegia egiteko, Urbaltzeko harrobia erabili zen. Bertatik atera ziren Urkuluko bidea eta presa egiteko harriak.

Urtegiako obrak amaitu zirenean, harrobiari ez zitzaion gehiago jaramonik egin eta alde batera baztertua gelditu zen. Ohikoa den moduan baztertuta utzitako tokiak zakar toki bihurtzen dira. Horrela, Urkuluko harrobian ere ikus zitezkeen, labadora, altzari, e.a.

Egoera horrelakoa izanik udalak Urkuluko harrobia berreskuratzea pentsatu zuen, eta Diputazioko Ingurugiro sailari harrobia berreskuratzeke eskaera egin zion.

Guzti honen ondorioz, harrobia berreskuratzeke proiektua landu zen, bere kostu totala 25 milioitakoa izanik.

Proiektuaren lehenengo fase

moduan ondorengo lanak egin dira:

Alde batetik Urkuluko bidea eta Ugasteira doan pista zaharra elkar-tzen dituen bidea egin da.

Bestetik Urbaltzeko errekatxoa bideratu eta errekuperatu da hein haundi batetan. Eta azkenik zubi bat ere egin da.

Baina lanak ez dira hemen bukatzen. Harrobiaren berreskuratze honetan, harrobia 200.000 m³ lurrez betetzea izango litzateke hurrengo pausoa. Hau eginda gero zuhaitzak landatu eta eskalatzeko orma egingo da, ingurua berreskuratzeke asmoz.

Honetaz gain eta aurrean aipatu-tako proiektuarekin zuzeneko lotura ez badu ere, aipatzekoa da Urkuluko bidean egin den lana. Alde batetik, Koruetatik presarako bidean zeuden zuloak estali dira. Beste aldetik bide bazterrak garbitu dira. Lan honen kostua 3 milioitakoa izan da.

Hirukin, familia ugaria

Familia ugariaren agiria eskatu daiteke dagoeneko

Lege berria aplikatuz, hiru seme-alaba dituzten familiek, familia ugariaren agiria eskatu dezakete.

Baldintza hauetan dauden seme alabak hartzen dira kontutan:

- 18 urte baino gutxiago izatea.
- Elbarrituak izatea, kasu honetan ez dago adin mugarik.

- 21 urtetik 25 urtera bitartean badaude ondorengo kasuetan:

- Soldaduzka egiten baldin badaude.
- Ikasketak egiten baldin badaude.
- Langabezian badaude.

Aurkeztu beharreko dokumentazioa honako hau da:

- Bi argazki, 8x5 zm.tako neurria dutenak.

- Elbarriturik egon ezkeru Foru Aldundiko ziurtagiria.

- Familia liburua.

Eskaerak Udaletxeko gizarte zerbitzuetan egin beharko dira, aurrez bakoitzari dagokion gizarte laguntzaileari txanda eskatuz. Informazio gehiago Udaletxean izango duzue.

Odol emaileek, datorren apirilaren 10 eta 18an odola emateko aukera izango dute Aretxabaletako Osasun Zentruan.
Ordutegia: 4,30etatik 8etara.



TABERNA-BERRI JATETXEA

Durana, 26
Tfnoa: 79 20 67
ARETXABALETA

ZARAIA TABERNA

Goizeko 5,30etatik
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

GARBITU S. KOOP

Garbiketa orokorrak

Errekabarren 3- Behea
Tfnoa: 79 01 28

Berbari hitzarmenaren sinaketa ekitaldia

Atxabaltako talde desberdinen artean euskararen erabilera bultzatzea du helburutzat.



Ezkerretik hasita, Patxi Lazkano, Jose Mari Zeberio, Aitor Antxia eta Miren Iriondo

Martxoaren 29an Udaletxeko pleno aretoan Atxabaltako kultur, kirol, gizarte eta gazte mugimendu ezberdinek sinatu zuten hitzarmena.

Talde desberdinetako ordezkarienez gain, ondorengoak egon ziren: Patxi Lazkano, Loramendi Kultur Elkarteko lehendakaria; Jose Mari Zeberio, Hizkuntz politikarako idazkari nagusia; Aitor Antxia, Aretxabaletako alkatea eta azkenik Miren Iriondo hitzarmen teknikaria.

Aurrerantzean atek herriko beste arlo batzutura zabaldu nahi dituzte. komertzio eta zerbitzu profesionaletara heldu nahi dute eta horrela euskararen normalkuntzan esparru berriak zabaldu.

Ekitaldiaren ostean luntxa izan zen bertara inguratu ziren guztientzat.

Kurtzebarri Eskolan antzerki eta literatur astea

Kurtzebarri Eskolakoek antzerki astea ospatu zuten martxoaren 23tik apirilaren 6ra bitartean. Aste honetan zehar antzerki emanaldiak eskaini ziren Kurtzebarri Eskolako neska-mutilen eskutik. Edozein Atxabaltarrek izan zuten antzerki lanak ikusteko aukera. Esan behar, gurasoen partaidetza handia izan zela eta antzerki lan politik antzestu zirela.

Apirilaren 4an berriz, literatur astearen barruan IRAKUR MARATOIA ospatu zen. Esan behar egun horretan Duni Zuazabeitia aritu zela bertan bildutako neska-mutiko guztiei lehengo historioak kontatzen. Anekdotarik ez zuen falta izan Dunik.

Lizaso eta Egañarekin bertso afaria



Sebastian Lizaso eta Andoni Egaña Muru Alde elkartean

Martxoaren 31n bertso afaria egon zen, **Andoni Egaña** eta **Sebastian Lisazorekin** Muru Alde elkartean. Bertsozaleek ondo erantzun zuten. Antolatzaileek adierazitakoaren arabera 60 pertsona egon ziren afaltzen. Oso giro ona egon ei zen. Gaueko 11,30etan hasi ziren Egaña eta Lizaso bertsoak botatzen eta horrela jarraitu zuten goizaldeko 2,30ak arte. Esan beharra dago afaltzen zeuden ia lagun gehienekin sartu zirela eta batzuei lotsa handia pasatu erein zietela.

Etxera joateko gogo gutxirekin etorri ziren bi bertsolariak. Goizeko 5etan oraindik umoretsu zeuden kalean Azken Bazterretik pasada egin ondoren.



Irakur maratoi egunean Duni Zuazabeitia kontu kontari aritu zen

Jardingintza ikastaroa

Arrasateko Udalaren Enplegu Zerbitzuak, INEMekin elkarlanean, jardingintzari buruzko ikastaroa antolatatu du.

Ikastaro honen helburua jardingintza arloan oinarrizko ezagupen teorikoak eta, batez ere, praktikoak ematea da. Horrela lorategi zein parketan lana egiteko profesionalak prestatuko dira, peoi espezializatu mailan. Ikastaroaren ezaugarriak honakoak dira:

- **Nori zuzendua:** Ikasketarik gabeko emakume zein gizonezkoei eta Arrasateko zein Deba Garaiko herri-tarrei zuzendua dago. Taldea 15 partaidez osatua egongo da.

- **Ordu kopurua:** ikastaroa 400 ordutakoa izango da.

- **Ordutegia:** Egunean 4 ordu, goizeko 9etatik ordu bata arte.

- **Egunak:** Ikastaroa maiatzaren 2an hasiko litzateke eta urriaren 31 arte iraungo luke.

- **Lan metodologia:**

Praktika: Astean 4 egun.

Praktika lekuak:

- Arrasateko jardin publikoak.
- Monterron eta Santa Barbara parkeak.
- Garagartzako mintegia.

Teoria: Astean egun bat.

Izena emateko eta informazio gehiago izan nahi ezker, Arrasateko INEM bulegoan izango duzu 1995eko apirilaren 10 arte.

PSE-EEko hautagaien aurkezpena

Maiatzaren 28an izango dira aurten hauteskundeak, ez daude urrun beraz. Orainartean PSE-EE alderdiak bakarrik aurkeztu du hautagaien zerrenda eta ondorengoa da:

- 1.- Iñaki Pierrugues
- 2.- Lorenzo Fernandez
- 3.- Pablo Pavon
- 4.- Eneko Arrieta
- 5.- Elena Argiñano
- 6.- Jose Javier Iñiguez
- 7.- Javier Valle
- 8.- Toni Boyedo
- 9.- Andres Lorenzo

Menopausiari buruzko tailerra

Osakidetzak menopausiari buruzko tailerra antolatatu du. 45 eta 54 urteko emakumeei zuzendua egongo da. Norberaren onurarako interesgarriak izango diren gaiak aztertuko dira, menopasia, autobalorapena, etabar.

Tailerrean emakumeen partehartzea eta esperientzia oinarrizkoak izango dira.

Ordutegia: Ostegunetan, goizeko 10etatik 12etara bitartean edo 4etatik 6etara bitartean.

Egunak: Maiatzaren 4, 11, 18, 25 eta ekainaren 1a.

Inskripzio epea: Martxoaren 27tik apirilaren 21era izango da Aretxabaletako eta Eskoriatzako osasun zentruan.



LASAGABASTER

Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

Euskalduntze prozesua

1983. urtean Eusko Jaur-laritzako Hezkuntza Sailak Elebitasunaren dekretuarekin A (gaztelaraz), B (elebiduna) eta D (euskalduna) ereduak ezarri zituenetik izan da eboluziorik. Deba Garaian, Haur Hezkuntzari dagokionez eta aurreko urtetako tendentziari jarraituz A eredu guztiz desagertu da. B eredu elebiduna ere piskanaka-piskanaka behera doan heinean, D eredu euskalduna etengabe hazten ari da. Egun, Haur Hezkuntzan, umeen ia %76ak D eredu egiten ditu ikasketak eta lehen OHO zen ikasmailatan, % 65,3ak egiten ditu ikasketak euskaraz. Maila hauean, bailara osoan % 0,3ak egiten ditu soilik ikasketak A eredu.

Hezibide

Guztien gainetik Estitxu Arozena

Estitxu Arozenaren buruan bukatu zuen igande arratsaldean Nafarroako Bertsolarien Txapelketan jokoan zegoen txapelak. Txapelketa nagusi batean gailentzea lortzen duen lehen emakumezkoa da. Zortzi bertsolariren arteko lehia amaitzean, aita-alabek eskuratu zituzten lehendabiziko postu biak.

Egunkaria
(95-04-4)

Nafarroak badu bere biblia

Nafarroako Aurrezki Kutxa izan zen Leizarragaren bibliaren erosle misteriosua. Guzti honegatik kritika zenbait izan da. Jose Maria Satrustegi, Eus-

Joan zen martxoaren 29an herriko 25 elkartet sinatu zuten hitzarmenarekin, Aretxabaletako herriak urrats bat gehiago eman duela euskararen normalkuntzaren prozesuan esan genezake. Guztia aurrera eramateko behar beharrezkoa zaigu denon arteko elkarlana eta kolaborazioa, dena ez dadin ekitaldi publiko batetan gera, jarraipen bat izan

BERBARI, berbetan ari eta segi



Miren Iriando
Hitzarmenaren koordinatzailea

dezan baino, euskarak denon laguntza behar bait du. Guztion artean errezago izango zaigulako bidea egitea eta eguneroko bizitzako arlo guztietan erabil dezakegula erakustea. Hala ere esan beharra dago erantzuna ona izan bada ere badirela herrian zenbait talde arrazoi desberdinengatik kanpoan geratu direnak.

Baina ez dugu guztia hemen bukatu dadin nahi, herriko beste sektore batzutara heltzea gura genuke eta euskarari sareak zabaltzen jarraitzea, beraz, aurreneko honetan kanpoan geratu diren taldeek gaia berraztertu dezatela, eta guztiok batera bultza egin diezaiozun euskararen geroari.

Bizirik dirauen herri batek bizirik dagoenaren testigu du bere komunikazio tresna hain baliagarri eta era berean hain beharrezko duen hizkuntza. Euskararik gabe izan ahal gaitzek euskaldun?

Baina erabiltzen ez den tresna denboraren poderioz erdoilduz doa, betirako gelditu arte. Beraz, denen artean mugitu dezagun poliki poliki erabiliz, gelditu ezinezko abiada hartu arte jarraituko duen euskara, "hizkuntza bat ez delako galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako dakitenek erabiltzen ez dutelako baino".

kaltzaindiko kideak esan duenez, nahiz eta liburua Nafarroara etortzea pozgarri izan, "astakeri handia izan da

hori erosteko modua, harrokeziak egin baita.

Egin
(95-04-5)



LOGOPEDIA
ZENTRUA

ARRASATE

HIZKUNTZ-ARAZOAK


HIZKETA ARAZOAK

AHOTZ ARAZOAK

IRAKUR-IDATZ ARAZOAK

Zurgin Kantoi, 3-1 Esk
Tfnoa: 79 79 46 ARRASATE

T
X
i
L
A
R
R
A



ELIKADURA
BEREZIA

Durana, 35
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9
Tfnoa: 79 44 28
ARETXABAETA

BEIRALAN



KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78
Aretxabaleta

FELIX PAGALDAY

Deba Garaiko

Biona

Pentsuen Banatzailea

Laborantza tresnak

Ongarriak- Haziak

Mitarte, 7 behea ☎ 77 00 33

Aste Santuen zentzua aldatu ote da?

Aste Santuek, erlijio ikuspuntutik aldaketarik izan duten galdetu diogu Vitorianori. Bere ustetan, gizarteak bere baitan izan duen aldaketa sakonaren ondorioa besterik ez da. *Erljioari guztiz itsatsirik zegoen gizarte ikuspegitik, sekulartasunaren autonomian gauzatutako gizartera pasatu gara. Soziologikoki, gizartea sakralizatua eta katolikozatua agertzen da (denak bataiatuta). Politika eta ideologi aldetik, erabatekoa. Giza baloreak sinismenean zuten iturria lehen. Gaur berriz, pluralismoa eta irekitasuna nagusitu dira eta erabakiorrak izan dira bizitzako arlo guztietan, baita bizitza beraren zentzu osoan ere. Aldaketa sakona eragin dute, kultur, balore eta ohituretan. Horrela aldaketa guzti hauek ulergarri egiten dute gaurko erlijioaren egoera.*

Aste Santuak gainean ditugula eta Vitoriano Aranbururekin, herriko abadearekin izan gara. Goiko galdera horri erantzuten saiatu da eta bide batez lehengo Aste Santuez gogoratzen dituen historio batzuk ere kontatu dizkigu.



ruan dago, lehen aipatu dudan pluralismoagatik". Baina bere ustetan, Aste Santuetako elizkizunek, sakontasun, freskotasun eta bizigarritasun haundia dute. Esatebaterako, Ostegun Santuko Azken Afariaren edertasuna, Ostiral Santuko Jaunaren Heriotzaren bakardadea, Larunbateko Pazko Gaubelako Piztueraren alaitasuna eta Pazko Igande Nagusiko poz jariora.

Bestalde lehengo elizkizunak luzeak eta aspergarriak ziren, akabera bakoak. Prozesioak egiten ziren. Gaur egun barre elizkizunak askoz ulergarriagoak dira eta gogoeta eragiten dutenak. Ostegun Santuz, ez zen auzoetan ospakizunik egiten; apaiz eta auzotarrak, Parrokiara etortzen ziren. Prozesioan, emakumeen aldetik batez ere, erropa eta modelo berrien erakusketa egiten

Erljio zentzuari dagokionez Aste Santuek ez dutela zentzurik galdu, norbere burua katolikotzat duen edonorentzako dio. Kontutan izan behar da, Aste Santuak Jesukristoren heriotza eta piztuera, misterio honen kokapen nagusia besterik ez da. Beraz, "kristauon festarik garrantzitsuena Pazkoko Igande Nagusia da, Jesusen Piztuera hain zuzen ere". **"Galdu, galdu, ez du zentzurik galdu. Kristauarentzat, erakargarritasun haundia dute. Galera, jendearen kopu-**

zen. Prozesio ondoren, tabernetan ekitaldi gogorra egiten zen antxoak eta basoerdiak zirela tarteko. Egun haundia izaten zen bildotsa jaten zutenentzat, besteentzat aldiz... Ostiral Santuan antzeko ekintzak egiten ziren. Arratsaldean Maitines eta Miserere abestu ondoren, "Teniolak". Eta bukatzeko, Larunbat Santuz, gaur egun gaez egiten dena, lehen goizetik egiten zen. Ospakizuna luzea eta aspergarria izaten zen (3 ordukoa).

AITZIBER
NIÑO

Lezama Merkatal Zentrua
Tfnoa: 79 13 32

Maritxu
Mertzeria

Araba Ibilbidea, 24
Tfnoa: 79 23 53
ARETXABALETA

Amaia-Berri, S.L
Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia

Otalora, 18 behea
Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

Artano
Taberna

Herriko Enparantza
ARETXABALETA

FOTO
UrKiola

Tfnoa: 79 39 20
ARETXABALETA

18
KELER

FELIX ARRESE
Edari Banatzailea

El León

Industrialdean • Tfnoa: 79 60 65



Elurra gozagarri bezain arriskutsua da

Eskizaleak urtetik urtera ugariago

Milaka eskizale joaten da Pirineoetara eta gero eta gehiago Alpeetara ere. Pirineoei dagokienez, Aragoi, Kataluña eta Andorra partean eskiatzen da. Gehienetan Jaca bilduleku dutela, Formigal, Astun eta Candanchu izaten dira eskizaleek gehien bizitatzen dituzten estazioak. Mugaz beste aldean, berriz, Arette, Gourette, Cauterets eta Luz Ardiden dira.

Eskizaleek gero eta joera handiagoa dute Frantzialdera joateko, merkeagoa ere badela adierazi digute. Aragoiko Pirineoetako estazioetan forfaitak batz bestea 3000 pezeta balio duen bitartean, Frantzia aldean 2500 pezeta inguru balio du eta deskontuak ere egiten dira ikasle txartelarekin. Honetaz gain, bidea luzeagoa bada ere, erosoagoa gertatzen da. Frantzialdean autopista hartu eta hiru ordutan hantxe

zaude. Aragoikoetara iristeko berriz, Azpiroz eta Yesa pasa beharra dago eta ez da hain bide eroso.

Atxabaltatik eskiatzera joaten direnek kontatu digutenez, normalean etxe bat alokatzen dute dozenerdi bat lagunaren artean eta bestela errefugioetan lo egin. Jana eta edaria hemendik eramaten da. Normalean zapatuan, goizean goiz irtetzen da eta domekan goizeko eski-saioaren ondoren, bazkaldu eta buelta.

Astebururako joan nahi izan ezker, bidai agentziek eskaintza ugari izaten dute. Zenbait udalek, diputaziok, aurrezki-kutxek edo elkarteek ere egun baterako, astebururako, nahiz egun batzuetarako bidaiak antolatzen dituzte, zure kasa joanda baino merkeago irtengo zaizkizunak.

Momentu honetan eski tenporada ia amaitzean dagoen arren Aste Santuetan lagun askok hartuko du estazioetarako bidea. Ez da ez broma eskiatzeak azken urteotan sortu duen grina.

Pistetan behera jeistea izaten da eskizaleek urtean zehar amets egiten dutena.

Eskiatzeko afizioak indar handia hartu du. Lehen batzuen pribilegioa bazen ere orain ia edozeinek izan du eskiatzeko aukera aldi baten, eskola, herriko elkarte, Diputazioak, e.a. antolatutako bidaiari esker.

Honela antolatutako bidaiari bidea asko errazten dute joan nahi duenarentzat.


Alpeetara ere bai?

Gaur egun gero eta eskizale gehiago ditugu Alpeetarako bidaiari egiten dutenak. Esan beharra dago Atxabaltan ere badela Alpeetara eskiatzera joaten denik. Ez pentsa hain garesti irtetzen duenik. Denboraldi bajaran, astebetetz eskiatzeak hogeitamar mila pezeta inguru balio du: bidaiari, etxea, forfaitak eta aseguruak barne. Gainera agentziak gero eta bidai merkeagoak eskaintzen dituzte.

Eskiaren arriskuak

Eski-egun eder bat zorigaitzeko bihur daiteke istripuren baten ondorioz. Elurra gozagarri bezain arriskutsua da. Istripuak aurreikus-teko ondo erreparatu behar zaio bai inguruneri, bai ekipoari eta baita eskizalearen jokaerari berari ere. Horretaz gain, eguzkiarekin ere kontuz ibili beharra dago. Erredurak askotan gertatzen dira, ukendu babesgarriak ez erabiltzeagatik.

Xabier Arenaza: "ahal dudanean behintzat eskiatzera joaten naiz".



Eskiaren inguruan berri gehiago jakin guran Xabierrengana jo dugu. Xabierrek eskiatzeko afizio haundia du eta ondo ezagutzen ditu eskiaren inguruko kontuak.

• **Zenbat urtekin hasi zinen eskiatzen?** *Sei urtekin gutxi gora behera. Koadrilako lagun batek ea eskiatzera joan nahi genuen galdetu zigun. Horrela hasi ginen eta behin joanda gero afizio haundia izan dut beti.*

• **Zenbat bider joaten zara urtean eskiatzera?** *Tenporada hasten denetik bukatu artean hilean behin gutxienez bai.*

• **Nora joaten zara normalean?** *Edurra dagoen tokira. Normalean Huesca aldera. Frantzialdera ere joaten gara. Alpeetan bi aldiz izan naiz.*


• **Garestia da Alpeetan eskiatzea?** *Beno, garestia bada baina diru pixkat izan ezkerero merezi du hara joateak. Oso pista egokiak daude.*

• **Nola joaten zarete normalean?** *Normalean lagunok gure kontu joaten gara. Rulota edo apartamentua alkatatzen dugu edo bestela errefugioetara joaten gara. Diru asko ez daukagunez errefugioetan lo egiten dugu. Larunbatean goizean goiz irtetzen dugu, horrela lo bakarria ordaintzen dugu. Janaria etxetik eramaten dugu.*

• **Zein edur mota da eskiatzeko egokiena?** *Egin berri duen edurra da egokiena baina horrelako edurrean eskiatzeko ondo jakin behar da. Edurra zapalduta dagoen pistan samur joaten da aurrera eta jiroak egitea ere errazagoa da.*

• **Eskiatzea arriskutsua da?** *Beno, nik seigarren tenporada daramat eskiatzen. Lehenengo lau urtetan ez zitzaidan ezer gertatu. Azken bi urteotan berriz bai, iaz ezkerreko belauna apurtu nuen eta aurten eskumakoa eta orkatila. Suerteak zerikusirik badauka. Bestalde edur motak ere garrantzi haundia du, edurra sopa-sopa egoten bada arrisku gehiago dago. Askotan erorketa tontoenak izaten dira aberia txarrenak ekartzen dituztenak. Norberaren esku ere badago hori, buru pixkat izan ezkerero, eskiatzea ez da zertan arriskutsua izan behar.*

Fernando Uribesalgo: "Eskiatzera antolatutako bidaiak arrakasta haundia izan du".



Murrukixo Mendizale Elkarteak eskirteera antolatu zuen joan den apirilaren bata eta birako. Fernando Uribesalgori, Murrukixoko arduradun nagusiari eski irteerari buruzko hainbat xehetasun galdetu dizkiogu.

• **Eskiatzeko afizio haundia dagoela uste duzu Atxabaltan?** *Nik uste dut baietz.*

• **Zer dela eta antolatu zen eski irteera?** *Bagenekien herrian eskiatzeko afizioa zegoela. Honez gain, herriari bizitasun pixkat eman nahi genion. Herriak horrelako irteera baten aurrean nola erantzungo zuen jakin nahi genuen.*

• **Nola prestatu zenuten bidaiak?** *Hasiera batetan juntan eski-irteera bat egiteko asmoa komentatu zen. Bagenekien Eskoriatzatik eski-irteera bat organizatu zitela. Horrela eurekin harremanetan jarri eta estazioei, autobusei eta errefugioei buruzko hainbat datu eman zizkiguten.*

• **Nola baloratuko zenuke irteera?** *Oso positiboa izan dela uste dut. Oso azkar bete zen autobusa. Bestalde, lagun asko animatu da, eta inoiz eskiatu gabeko jendea ere bai. Ondo pasatu eta bide batez lagun gehiago ezagutzeko aukera izan dugu. Herritarrekin ere harreman gehiago izaten da horrelako irteeretan. Herrian gaudenean koadrila desberdinen artean ez da harreman haundirik egoten. Horrelako irteerak oso positiboak dira herritarron arteko harremanak hobetzeko.*

• **Istripu asko egon da?** *Bost pertsona etorri dira zauriturik. Pistetako edurra ez zegoen egoera onean. Goizaldera edur gogorra zegoen baina eguerdi alderako eguzkiak gogor berotzen zuenez sopa sopa eginda gelditu zen edur guztia. Horrelakotan ez da batere zaila instripuak suertatzea. Edurra pilotzen da eskien aldamenetan eta norberak gorputzarekin jiroa egin arren eskiak ez dira mugitzen eta momentu horretan belauna apurtzea erraza da.*

• **Datorren urterako beste irteerarik antolatzeko asmorik baduzue?** *Bai, komentatu dugu. Horrelako irteera gehiago antolatu beharko genituzke datorren urtean. Tenporada hasten denean egitea egokiagoa izango litzateke edurra egoera hobean egoten da eta.*

Patinaje ikastaroa kiroldegian

Deba Garaiko Euskera eta Kirol zerbitzuak antolatuta patinaje ikastaroa izan zen joan den apirilaren 1ean kiroldegian. **Joxean Iñarra** bergararrak eman zuen ikastaroa. Ibili ziren 16 neska-mutiletatik atxabaltar bakarra izan zen.

U.D.Ako neskek amaitu dute aurtengo liga

Neskek amaiera eman zioten ligari Lagun Onak taldearen aurka. Galdu egin zuten 0 eta 1 emaitzarekin. Klasifikazioan 14. tokian gelditu dira. Orain kopa jokatu dute eta lehenengo partidua gainera Arrasaten kontra izango da Atxabaltan.



Atxabaltako kiroldegian izan zen patinaje ikastaroa

FUTBOL EMAITZAK

PREFERENTE

ARETXABALETA 0 PASAJES 1

1º ERREGIONALA

AZKUENE 2 ARETXABALETA 0

1º JUBENILA I

ARETXABALETA 6 ZARAUTZ 0

1º JUBENILA II

ARETXABALETA 1 BILLABONA 2

SASKIBALOI EMAITZAK

KADETEA EMAKUMEZKOAK

-B taldea -

ETXADI 41 ALMEN 45

XAKE EMAITZAK

PREFERENTE MAILA

EIBAR 3 ARETXABALETA 1

EROSKI KONSUM

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8
Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g
Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

BITXITEGIA

MIREN & ZURIÑE
BITXIEN DISEINUA

BITXIEN-KONPONKETA
Otalora kalea
Eliza aurrean
Tfnoa: 77 13 57

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87

Okindegia - Goozologia
Panaderia - Pasteleria


Aretxabaleta

Mitarta 1 - Tfno. 77 00 81

Aretxabaleta

Crador Propic

EGUZKIGRAF



Aldizkariak
Inpresok
Bulegoko materialak

Aretxabaletako Industrialdea, F-0-4 ARETXABALETA
Tfnoa: 943- 79 18 44 Faxa: 943- 79 29 41

TXIMAK

Hileapaindegi mixtoa

Herriko Plaza, 5- Behea
Tfnoa: 79 83 64

ARETXABALETA

MATIKUA

Taberna

Aozaratza auzoa
☎ 79 16 68

ARETXABALETA



MAPFRE

Aseguroak

Errekararren, 3
Tfnoa: 77 11 76

OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4
Tfnoa: 79 98 74
ARETXABALETA

Ibilaldi neurtua

Joan den martxoaren 26an ibilaldi neurtua izan zen Atxabaltan. Inguruko ikastoletako gaztetxo askok parte hartu zuen.



Gaztetxoak ibilaldia hasi baino lehen Gipuzkoako Plazan


Urtero egin izan da Gipuzkoa mailan, eskolarteko ibilaldi neurtua. Oraingo honetan Atxabaltan egitea tokatu zen. Zaraia Mendi Taldeak antolatu zuen egun hau.

Irteera goizeko 8,30etan izan zen Gipuzkoako Plazatik. Rekorridoa ondorengoa izan zen; Asentsio-Untzila-Murumendi azpitik Etxe-Zuri Baserrira-Izurietara eta Gipuzkoako Plaza. Hamarretakoa Untzilana izan zen eta guztira bost kontrol pasatu behar izan zituzten partaideek, lehen irteeran, hurrengo hirurak rekorridoa zehar eta azkena helmugan.

Lehenengo partaideak 12,30ak aldera helmugaratu ziren baina denbora luzea pasa zen azkenak heldu ziren arte.

Bukaeran nahiko burukomin izan zuten antolatzailerak partehartzaile guztiei diploma bana eta oparitxoa banatzen.

Martin Garai, Zaraia Mendi Taldeko arduradun nagusia.



Ibilaldi neurtuari buruzko berri gehiago jakin guran Martinengana jo dugu. Martinek 5 urte daramatza Zaraia M.T.n eta momentu honetan arduradun nagusia da.

• Zer helburu dauka Eskolarteko Ibilaldi neurtuak?

Eskolarteko kirolaren barruan, zaletasun desberdinak bultzatu nahi dira. Ibilaldi neurtuak mendirakoa bultzatu nahi du eta aldi berean natura ezagutzea, e.a.

• Urtero egin izan da?

Aurten VIII. lehiaketa ospatu da, beraz duela zortzi urte ere ekintza hau egiten zen. Gure asmoa, horrelako beste ibilaldi asko egitea da.

• Zenbat lagun aritu zineten organizatzen?

70 bat lagun ibili gara jo ta ke lanean hiru hilabetetan zehar gero ibilaldian arazorik ez zedin egon.

• Arazorik eduki zenuten?

Ez, bat ere ez.

• Zenbat lagun etorri zen? eta nondik?

Guk jaso ditugun datuen arabera eta Gipuzkoako Mendizale Federaziotik bidali dizkiguten datuen arabera guztira 1411 parteartzaile izan ziren. Dena den, oraindik datu batzuk zehaztu gabe daude, Eibarreko bi ikastoletakoak esaterako. Partehartzaileak ondorengo herrietatik hurbildu ziren: Eskoriatza, Arrasate, Oñati, Bergara, Antzuola, Soraluze, Eibar, Elgoibar eta Deba.

• Zenbat urteko haurrek parte hartu zuten?

Ibilaldian zortzitik hamazortzira bitartekoek parte hartu zuten. Dena dela, lehiaketatik kanpo, jende nagusiak ere parte hartu zuen.

ZERBITEK,S.L

Servicio Oficial de
Fagor Automoción

Poligono Basabe D-0-1
Tfno: 77 06 88 Aretxabaleta


**Dorleta
Taberna**

Loramendi, 8
Tfnoa: 79 94 15
Aretxabaleta

MIKELOS

Moda
Guztia Zuretzat

Iparragirre 3 ☎ 79 36 67
ARETXABALETA

 **IBARRA**

ESTANKOA
Tabakoa eta
ikasmateriala

Bizkaia, 3 Tfnoa: 79 23 77

Gaztetxoen lanak ezagutzen

Irribarretxo bat

gure

xelebrekeriekin



Portasolen txakur batek balkoitik txixa egin zuen eta neska bat bainatu zuen.




UNAI IGLESIA
JON CALDOS

Plazan patinetarekin nenbilela ipurdiko galanta hartu nuen.



MAILEN ZABALA
ELISABETH BERRIDI

Udako jokalaria batek gola sudurrearekin sartu zuen eta sudurra potoloa jarri zitzaion




IBAI MUIKA
JONATHAN PEREZ

Aretxabaletan Txino dantza egin zutenean ba kamisioia jausi zitzaion eta kantzontziloak ikur zitzaizkion.




MADDALEN AKIZ

Lepogorritxok kaiolatik ihes egin zuenean aitak harrapatu zuen eta.....
Tirrin, tirrin hemen dago gure Lepogorritxo.



MAITE FRAILE
MAITANE DORDA

Sugeak pailazoari kili kili egin dio eta pailaz barrez jausi da.



ARITZ ALONS
AINHOA SAN

MEMESA S.L.

Santa Kurtz, 25-27
Tfnoa: 77 11 75
ARETXABALETA

**MENDIOLA
ERRETEGIA**

Bazkari eta afariak

Astelehenetan itxita
Tfnoa: 71 43 45
ESKORIATZA

MARI-MERKE

.....
Ihauterietarako
mozorro guztiak
.....

Lezama Merkatal Zentrua
ARETXABALETA

**AMETS
TABERNA**

Iparragirre, 4
Tfnoa: 79 01 29
Aretxabaleta



Basabe Poligonoa A-15
☎ 79 34 28
ARETXABALETA

SAGASTA

ELEKTRIZITATEA

- Elektrogailuak
- Elektra-instalakuntzak


Otalora, 14
Tfnoa: 79 16 10

ZENTRO
PSIKOPEDAGOGIKOA

Zerbitzuak

Diagnostikoa-Orientazioa
Logopedia
Laguntza terapia

Ignazio Zuloaga kalea, 10
☎ 79 47 77 ARRASATE



ARGI-PLASTIC

Leihoak egiten dira

Axeri,3 ARRASATE
Tfnoa: 77 11 30



GARIZUMA

Garizuma, bere karapaixo eta guzti, ba doa, bukatzeaz dago. Kristau egutegia jarraituz, Garizumaren ondoren, Aste Santua dator. Garai batetan, egutegi erlijiosa bizitzaren ardatza izaten zen; gaur egun baldintzatzen gaituen egutegi bakarra, egutegi gorria da, jai egunetakoa.

Ze denbora gutxitan aldatu den dena! Lehenagoko Aste Santua! Ofizioak elizan, Prozesioa, Saindu guztiak beltzez estalita, musikariak ez... Dibertimentu bakarra LAUKO edo DOKE izeneko jokoa izaten zen. Galtzen zutenek, meriendako antxoak eta ardoa ordaindu behar izaten zuten. Gaur egun, aipatutako azken ohitura hau jarraitzen dute banaka batzuk. Hori bai, Bariku Santuko "ya murió mi Redentor" unkiarra entzun ondoren.

*A... garai bateko Ofizio eta Prozesioak! Elizatik atera, aurrean Gurutze Saindua zeramatelarik, eta jendea atzetik. Durana kaletik zehar, Aurreneko aldatzetik gora, Estaziñora; gero Pagaldaixeneko kantoittik behera, kaletik bueltan, berriz elizara. Geraldaldi bakoitzean "Pater Noster" bat errezatzen zen. Argazkian agertzen dena, 1.954ko Aste Santuko Durana kalean eginiko geraldaldi horietako bat da. Anderoak, "Kristo Andakua" eramaten, **Miguel San Juan** eta **Jesus Uribesalgo**; atzeko anderoak, esan digutenez, **Esteban Gorroño** eta **Victor Jauregi** izan ziren. "Kristo Andakua"-ri so dagoen monagiloa **Santi Zubizarreta** da. Aurpegia azaldu ez arren, hor agertzen da galaz jantzitako Goardia Zibil bat ere.*

Orduko more koloredun goibeltasunak, gehienetan patxaran bihurtu dira.

*Iñaki Urreta Leturiondo
Aitor Antxia Leturia*

Bertsoak eta eskiak



J.J. Aretxaga

Txirindulariak pasatu ziren lehengunean Aretxabaletatik. Sinpenanigloria, denak batera eta trankil antzean. Rusoa lehenengo, **Saitov** delako bat Herritik pasatu ziren beste batzuk, aurreko ostiralean, **Andoni Egaña** eta **Sebastian Lizaso** izan ziren. Murualden izan zen bertso afarian inguruak ederto astindu zituzten, aldamenetik **Arantzazu Loidik** txibatuta. Gustora egongo ziren, goizeko 5etan oraindik herritik bialdu ezinik ibili ziren eta. Mikel Egizabal apaizak ere gaztetxean bukatu ei zuen bertsolariekin... Kontuak atara ze giro modu ibili zen. Goizaldera topo egin ei zuten Murruxotik eskietan zihoazenekin eta baita eski eta guzti

argazkiak atara be.

Ez zieten suerte onik eman bertsolariok eskiatzaileei. Irteeran 5 istripu izan ei ziren. **Ana Milan** arrasatearra, **Iñigo Eraña** eskoritzarra, eta **Nagore Eraña**, **Josu Otxoa** eta **Josu Urkia** atxabaltarrak lesionatuta bukatu zuten. Azkena, Josu, etxekoa dugu gainera, aldizkariko zuzendaritza batzordekoa, eta zeozer serioa ei dauka belaunean. Mila bider esanda daukat eskiatzea ez dela moda sanoa.

Irakurketa maratonia antolatu zuen joan zen martizenean Kurtzebarri eskolak. 12 orduz iraun zuen maratoni honek, goizeko 9etatik gabeko 9etara. Tartean **Duni Zuazabeitia** izan zen garai bateko Aretxabaletako kontu eta historia zaharrak kontetan. Hartuko nuke nik be horrelako entzunalditxo bat. Ez da geldik egotekoa emakume hau. Antzerkia egiteko ideia ere buruan darabilela esan didate. Ea laguntzaileak izaten dituen. Eta gazte batzuk eredia hartzen duten, Duniren gauzak egiteko gogoia eta arrankea ikusita.

A R E T X A Z O K A

LANA

• Umeak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko esperientziadun neska prest dago.

Deitu, 79 96 10 telefonora. (Maritxu)

• Instalazio merkeak egiten dira:

- Oholtza
- Lixaketak
- Barnizatuak
- Parketa

Deitu telefono hauetara: 79 65 25
79 07 62
71 63 95

• Pertsona euskalduna behar da umeak zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 77 13 30

ETXEBIZITZA

Eskoriatza erdian pisua alokatzen da. Sukaldea, bainu gela eta komuna berriztu eta hornituak ditu. Honez gain 3 logela, komedorea, terraza eder bat eta garajea ditu. Harremanetarako deitu: 71 43 51 telefonora gaueko 9etatik 10etara.


• Pisu bat salgai dago Bedarreta auzoan eta garaje bat Murubiden.. Deitu: 79 80 27 telefonora, eguerdiko ordu 1etatik ordubietara bitartean edo arratsaldeko 7etatik aurrera.

Atal honetako iragar-kiak dohainik dira, beraz, iragarkirik jarri nahi izanez gero deitu ondorengo telefonora: 79 01 05



Joakin Lizarralde

Jubilatuta baina oraindik osasuntsu



Joakin Lizarralde

Zenbatak nahiko lukete Joakinek dituen hankak izatea. Egunero egunero bai goizean eta bai arratsaldean bi pasio egiten ditu Atxabaltako auzoetatik. Gainera ez pentsa poliki poliki ibiltzen denik. Pauso arina eramaten du.

- **Jubilatuta gustora?**
Horixe.
- **Pasiuen asko ikusten zaitugu...**
Bai, niri asko gustatzen zait pasiatzea.
- **Nondik egiten duzu buelta?**
Batzutan Urkulure, bestetan Untzilara, Murure, Larrinure, e.a.
- **Zenbat buelta egunean?**
Goizetan buelta txikitxo bat egiten dut, arratsaldetan buelta luzeagoa.
- **Urkuluri zenbat denboran ematen diozu buelta?**
Hori ezin nezake esan, beti norbaitekin hizketan gelditzen naiz eta.
- **Zer egiten duzu pasiatzerakoan neska politik ikusiz gero?**
Lehenengo begiratu behintzat.
- **Udaberria sasoi ona da pasiuen joateko?**
Bai, eguzkia dagoenean batez ere. Gainera arratsadiak luzeagoak dira.
- **Zer egin behar da horren osasuntsu egoteko?**
Nik gauza espezialik ez dut egiten.
- **Gaztetan juergista bat ei zinen...**
Pixkat bakarrik.
- **Non ezagutu zenuen zure andria, Poloni?**
Lanean batera ibili ginen eta hantxe.
- **Zure kapritxoren bat...**
Kapritxo espezialik ez daukat.
- **Zer armozetan duzu?**
Kafe eta esnea sopakin.
- **Barau eta bigili egiten duzu?**
Bai, biak.
- **Zer egingo zenuke diru asko izanez gero?**
Misiolariei lagundu.
- **Zein da auzorik politena Atxabaltan?**
Larrinu, Azatza... denak dira politik.
- **Postrerako gatzatua ala gatzai nahiago?**
Gatzatua.
- **Nora joango zinateke oportetan?**
Hemen ondo pasatzen ditut oporrak.



Alberto Zillaurren
da aurreko alean saritu suertatu zena.

On egin!

ARETXAGAZETako bazkide batek, beste lagun batekin, **Ibarra Jatetxean** afaltzeko aukera izango du. Horretarako galdera ondo erantzun beharko duzu. **Erantzuna aldizkarian bertan aurkituko duzu, beraz adi adi irakurri ezazu.**

Erantzun guztiek ARETXAGAZETaren bulegoan (Kultur Etxean dagoen buzoian) egon beharko dute datorren eguna baino lehen.. Animatu zaitezte eta idatzi afari goxo bat dastatzeko aukera duzue eta.

**IBARRA
JATETXEA**

Araba Ibilbidea, 29 ARETXABALETA 20550
Telefona (943) 79 69 86 (Gipuzkoa)

Familia ugaria izateko zenbat seme-alaba behar dira?

a.- 3 _____

b.- 4 _____

d.- 5 _____

Aurreko asteko erantzuna, "Berbari" zen.


Erantzuna:

Izena:

Kalea:

Tfnoa:

BERGARA



Apirilak 6

ZINE-KLUB-a

Antimilitarismoari buruzko filmea. Novedades Aretoan izango da arratsaldeko 8etan.

Apirilak 7, eguakotxa

MUSIKA EMANALDIA

"The Allnighters" musika taldearen emanaldia. Pol-Pol tabernan arratsaldeko 8etan.

Apirilak 8, zapatua

FERIA

Erramu zapatuko feria. Bergarako kale eta tabernetan **parodia antimilitarista**.

Apirilak 8, zapatua

ERRAMU EGUNA

Udal Musika Bandaren kalejira eta kontzertua Novedades Aretoan, eguerdiko 12etan.

OÑATI



Apirilak 21

ANTZERKIA

Gaueko 10,30etan, Bergarako **TAUN TAUN** Taldearen azken lana izango da ikusgai "**MAKINATU**"

Apirilak 22-maiatzak 7

ERAKUSKETAK

Udaletxeko Areto Nagusian **AINZINAKO BURUKOAK** (Tokadoak) XV. eta XVI. mendeetako (Tocados cunniformes) garaiko grabatuak, musika tresnak, e.a.

Apirilak 23, domeka

DANTZA ERAKUSKETA

Igande eguerdian Foru Enparantzan **DANTZA ERAKUSKETA** (Sueltoa: fandangoa, arin -arina) leku ezberdinetako barianteak: Durangaldea, Gohierria, Errioxa, e.a. Tresna ezberdinez lagundurik: Txistua, trikitixa, alboka, dultzaina,...

Apirilak 25, martizena

DIAPOSITIBA EMANALDIA

Kultur Etxean izango da, **URTAROAK MENDIAN** izenburupean. Egilea: Imanol Lasa

ARRASATE



Apirilak 7

KONTZERTUA

Gaueko 10,30etan Amaia Antzokian Hall-en **ALHERT PL**aren kontzertua izango da. Sarrera 300 pezeta izango da.

Apirilak 8, zapatua

ORKESTRAREN AURKEZPENA

Arratsaldeko 7etan Amaia Antzokian Arrasate musikaleko kamara **ORKESTRAREN** aurkezpena izango da ikusgai. Sarrera bazkideentzat dohain izango da eta gainontzekoentzat 500 pezeta.

Apirilak 19, eguastena

KONTZERTUA

Arratsaldeko 7etan Amaia Antzokian **Turina Hirukotearen KONTZERTUA** izango da. Kontzertua Arrasate musikalek antolatuta dago. Bazkideentzat dohain izango da gainontzekoentzako 500 pezeta.

Apirilak 20, 21 eta 22

MENDI IRTEERA

AEDk antolatuta "**Hiru Haundietara**" izango da mendi irteera.

Apirilak 22-maiatzak 2

ARGAZKI ERAKUSKETA

Jose Luis Feogaren argazki erakusketa.

Berrikuntzak



MODAN DAGOEN GUZTIA

Iparragirre,4
Tfnoa. 79 21 24

"HERRASTI" AKEITA



Aralar kalea, 7
Tfnoa: 79 32 83

LASA AGUILERA

Aholkularitza

Andra Mari Auzunea,3
☎ 79 29 26
ARETXABALETA

OSKAR

HARATEGIA

Loramendi,1
☎ 79 71 69

ARETXABAETA



Apirilak 7, eguakotxa

POESIA EMANALDIA

Lubaki Bandaren poesia emanaldia izango da liburutegian, arratsaldeko 7etan.

Apirilak 9, domeka

MENDI IRTEERA

Zaraia Mendi T. antolatuta **Murube**-ra izango da irteera. Goizeko 8,30etan irtengo dira Nafarroa 4 kaletik.

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Legutio-Otxandio-**Urkiola**-Legutio-Landa-Aretxabaleta. Irteera goizeko 9,30etan izango da Nafarroa 4 kaletik. 72 Km.

Apirilak 11, martizena

IKUSKIZUNA

Sarasua anaiek, Luis Lekunberrik pianoan lagundurik, "**Fauna txiki bat bertso berrian**" eskainiko dute.

Apirilak 10, 11 12

ERAKUSKETA

Ilustratzaileen erakusketa Astixaren eskutik. Liburutegian izango da, arratsaldiko 5etan.

Apirilak 13tik, 17ra

MENDI IRTEERA BEREZIA

Zaraia Mendi T. antolatuta irteera berezia izango da egun ohietan.

Apirilak 13tik, 17ra

GREDOSEra IRTEERA

Murruxiko Mendizale E. **Gredoserako** mendi irteera antolatu du apirilaren 13tik 17ra bitartean. Eolako aterpean egongo dira eta lau irteera egingo dituzte: **Almanzor** (2.437m.), **La Galana** (2.568m), **El Casquerazo** (2.437m.) eta **Tres Hermanitos** (2.336 m.).

Apirilak 13, eguena

U.D.A.-ORDIZIA K. E.

Ibarran jokatuko da arratsaldeko 5,etan.

Apirilak 16, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Kanpanzar-Mafiena-Durango-Euba-**Bernagoitia**-Durango-Kanpanzar-Aretxabaleta. Irteera goizeko 9,30etan izango da Nafarroa 4 kaletik. 72 Km.

Apirilak 20, eguena

HITZALDIA

Loramendi K. E. **sendabellarrei** buruzko hitzaldia antolatu du. Arratsaldeko 3,30etan izango da Loramendiko lokalean. Hitzaldia Alberto Altubek emango du.

Apirilak 23, domeka

ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Landa-Ozaeta-Heredia-**Agurain**-Heredia-Landa-Aretxabaleta. Irteera goizeko 9,30etan izango da Zaraia 4 kaletik. Guztira 79 Km. egingo dituzte.

Aste Santuak datozela eta Aretxagazetak ere atsedenal-ditxo bat hartuko du. Hurrengo Aretxagazetak apirilaren 27an irtengo du. Ordurarte beraz, ondo izan!

BEHARREZKO TELEFONOAK



Aretxabaleta

- Udal Bulegoak 79 10 00
- Udaltzaingoa 77 45 67
- Euskaltegia 79 21 68
- Postetxea 79 28 31
- Kultur-Etxea 79 01 05
- Gizarte-Laguntzailea 79 10 00
- Kiroletxea 79 64 61
- Parrokia (Bulegoa) 79 18 42
- Basotxo 77 09 81
- Urats Gain 79 99 11
- Osasun zentroa 79 74 58
- Hezibide Elkarte 79 31 32
- Industrialdea 79 62 80
- Liburutegia 79 10 00
- Taxi Geltokia 79 22 33
- Loramendi K.E. 77 0970
- Murruxiko M.E. 79 93 74
- Leniz Lanbide Esk. 79 79 00
- Kurtzebarri Eskola 79 00 49
- Pausoka Haur-Esk. 77 03 77
- Santa Rita Ikastetxea 79 17 00
- ALMEN 71 49 64
- Otalora 79 79 99

Udaltzaingoa

- Arrasate 79 14 39
- Bergara 76 14 69
- Eskoriatza 79 03 22
- Oñati 78 04 11

Denetarik

- Eskualde-Ospitala (Arrasate) 79 53 00
- Gurutze-Gorria (Bergara) 76 55 76
- Ertzaintza (Arrasate) 79 71 99
- Suhiltzaileak (Oñati) 79 28 00
- Renfe (Zumarraga) 72 15 15
- Renfe (Gasteiz) 23 20 30
- Pesa (Arrasate) 79 14 19
- Larrialdiak (Arrasate) 79 13 57
- Deba Garaiko Kontsumitzaile eta Erabiltzeen Elkarte 79 87 77
- Deba Garaiko Udal Elkarte 79 33 99
- SOS Deiak 088

IMANOL JANARI DENDA

Harategia

BEREZIKI Urdaitegia

Fruitategia

Gorbea Kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAETA

LEIBAR
ARRAINDEGIA

Mitarte Kalea, 1
Tfnoa: 77 13 79
ARETXABAETA



Errealitateak fikzioa gainditzen duenean.



Escort'95 berria



Batzuetan errealitateak espektatiba guztiak gainditzen ditu. Baita Escort'95ak ere. Automobil klase berria. Oso estilo jakinekoa. Ibilian, fikziozko munduan zaudela usteko duzu bere ixiltasuna eta dardara eza direla eta, baina errealitatea da. Bere suspentsio sistema berriak eta direkzio lagunduak, suabea eta arina egiten dute bidetan Escort berria.

Bere segurtasuna sistema aktibo eta

pasiboaz gain, gainera, lapurketen kontrako finkatzaile elektroniko sistema berria.

Escort berriak Zetek 16 V. edo Turbodiesel motore aurreratua ditu eta aukera zabala 3,4,5 ate eta Nomade eta Cabrio modeloetan. Proba ezazu zure Banatzailean. Orduantxe ulertuko duzu errealitateak zergatik gainditzen duen fikzioa.



Ford guztion
segurtasunerako

Informazioa eta proba 900 51 51 51

MUGARRI

